Donostiako 3 Hondartza Krosaren txikientzako bigarren edizioa, Donostiako Jakintza Atletismo Klubak, Bidasoa Atletico Taldearen zuzendaritza teknikoaren laguntzarekin eta LABORAL KUTXA babesarekin, datorren urriaren 10ean antolatuko da, 11:15etik aurrera.

Aurten, osasun-egoera dela eta, erakundeekin aldez aurretik adostutako **Covid aurkako neurrien protokolo** honi jarraituko zaio:

Protokoloa irakurri

DORTSALAREN JASOTZEA

Dortsal-txipa Donostiako Larramendi kaleko Robers kirol-dendan jaso ahal izango da, honako ordutegi honetan:

URRIAK 7, OSTEGUNA: 10:00-13: 00 eta 16: 00-20:00
URRIAK 8, OSTIRALA: 10:00-13: 00 eta 16: 00-20:00
URRIAK 9, LARUNBATA: 10:00-13: 00 eta 16: 00-20:00

Nahitaezkoa izango da **maskara** erabiltzea dortsala hartzeko unean.

ROBERS-EN KOKAPENA DONOSTIAN

Halaber, lasterketaren egunean bertan hartu ahal izango da dortsala. Horretarako, Eduardo Chillida pasealekuan, idazkaritza-gune bat jarriko da.

IDAZKARITZAREN KOKAPENA

Era berean, nahitaezkoa izango da maskara erabiltzea dortsala hartzerakoan.

LASTERKETEN ANTOLAMENDUA

11:15etik aurrera, nagusien lasterketa amaitzerakoan, 30 eta 45 partehartzaile bitarteko taldeetan antolatuko dira lasterketak. Satrustegi etorbidearen eta Eduardo Chillida pasealekuaren arteko elkargunean dagoen bilketa-gunera bertaratuko dira txikiak, bakoitzaren lasterketa hasi baino 10-15 minutu lehenago.

IRTEERA-EREMUA

Puntu horretan, haurrak monitoreen kontura geratuko dira, eta haiekin egingo dute beroketa, irteera-puntura bideratu aurretik.

LASTERKETEN ORDUTEGIA

Ordua	Dortsalak	Lasterketa	Distantzia
11:25	1-60	Alebin neska mutilak, 2010/2011 ean jaiotakoak	750 m.
11:35	61-95	Benjamin neska mutilak, 2012 ean jaiotakoak (1. lasterketa)	500 m.
11:40	96-130	Benjamin neska mutilak, 2012 ean jaiotakoak (2.en lasterketa)	500 m.
11:45	131-165	Benjamin neska mutilak, 2013 ean jaiotakoak	500 m.
11:50	166-210	Benjamin aurreko neska mutilak, 2014 ean jaiotakoak	250 m.
11:55	211-250	Benjamin aurreko mutilak, 2015 ean jaiotakoak	250 m.

IRTEERA GUNEKO PLANOA

IRTEERA-EREMURA IRISTEKO MODUA

Irteerara beren ibilgailuan hurbiltzen diren partaideentzat, unibertsitateen eremuan aparkatzea eta handik irteera-gunera hurbiltzea gomendatzen dugu.

APARKALEKUAREN PLANOA

IBILBIDEA

IBILBIDEAREN PLANOA

Mediku-laguntza egongo da zirkuitoan zehar.

HELMUGA GUNEA

Behin helmuga-arkua gurutzatuta, nahitaezkoa izango da maskara erabiltzea. Parte-hartzaileak, orduan, helmuga gunetik alde egingo dute hornidura gunerako bidean. Pixka bat aurrerago, Satrustegi etorbidearen eta Eduardo Chillida pasealekuaren arteko elkargunean gurasoak haurrak jasotzeko gunea kokatuta egongo da.

HELMUGA GUNEKO PLANOA